

# Arantzazuko ekonomiaz

Joseba Intxausti

**S**an Frantzisko Asiskok ez zuen "Ekonomiaren Historiaz" mintzaldirik eman, ez eta bere garaiko moneta-politikari buruz deus idatzi, baina sarritan mintzatu zen jendeen eta fraideen pobreziaz eta diruak zituen arriskuez. Hortaz, nahiago izan zuen kristauek eta bere Anaiek munduko eta gizarteko ondasunekiko zaindu behar zituzten balio etiko eta ebanjeliotarrez bere mezua finkatuta utzi.

Frantziskotarren bilakaera historikoan, ondasunen eta pobretasunaren arazoa garaian garaiko fraideen eta erreformen bihotzean egon da beti, hau da, familia erlijioso honen kezka larrienen artean.

## 1. FRANTZISKOTARRAK ETA EKONOMIA

Erlijioso guztiek pobretasun-botoa egin ohi dute, eta jabego pertsonala izateari uko egiten diote boto horren bidez. Hortik aurrera, fraide bakoitzak duen oro Erakundearena izango da, eta honek utziko dizkio bakoitzari premia-koak dituen eraikin eta gauzen erabilpena, eta jan-edari eta jantziak. Hau da bizitza erlijiosoaren oinarritzko arau bat.

Aldi berean, Elizako Ordena edo Institutu Erlijiosoek, Erakunde gisa, beren ondasunak izateko eskubidea gorde ohi dute, normalean. Horregatik, nahiz eta erlijioso pertsonalki, esan dugun moduan, pobrea izan (jabegorik gabea eta praktikan gehiengotan bizimodu pobreakoa, gainera), gerta daiteke Ordena bera ondasun handien jabe izatea, edota aitzitik Erakunde bezala ere, jabe izan arren, txiroa izatea. Frantziskotarrek hemendik harago joan nahi izan dute beren helburuetan.

San Frantziskok ez zuen nahi izan bere fraideek inolako jabetasunik gordetzea, ez pertsonalik, ez erakundezkorik. Ordenak bere Anaietan eta Elkartean ere jabego oro utzi egin behar zuen zinezko frantziskotar izateko. Irizpide honek ondorio larriak izan zituen, eta Anaiak etxeetan bizitzen edo elizak eraikitzen hasi zirenean, berauen jabetasunaz erabaki garbiak hartu beharrean aurkitu ziren.

Bestalde, Elizak berak ere halako Senitarte zabala bere zerbitzurako erabil zezakeela ikustean, XIII. mendetik bertatik erantzun behar izan zion galdera honi: Elkarte handi hura ondasun-jabegorik gabe eta modu iraunkorrean nola izan

Resumen	
Data	12388,70
Cargo	12615,73
Deficit	272,77
Suplemento Junio	705,00
Zudan	432,03

Notas y examinadas las precedentes cuentas, y habiendolas hallado fides y exactas se aprobaron.  
Tramitadas 1.º de Agosto de 1921.

J. Agustín Guebara  
Fr. Gerardo de la Cruz, O.S.A.  
D. Representante

Fr. Serafín Violaeschea  
Discreto

Fr. Juan Eliegu  
Fr. José María Olayo  
Fr. José María Olayo  
Fr. José María Olayo  
Juan T. Zurarrain

zitekeen bideragarri Elizako bizitzan? Erantzunak interes bikoitza zuen: alde batetik, fraideek berek garbi ikusi behar zuten ondasunez baliatu bai, baina jabegorik gabe bizi zitezkeela, Ordenako karismarekin leial izanez; eta, bestetik, Elizak ere irtenbide juridiko-praktiko jatorra eskaini nahi zion Ordena berriari, guztien onetan izango zelakoan.

San Frantziskok bere fraideei eman zizkien Erregla eta Testamentua azaldu-argitzean, Aita Santuek oso gogoan izan zuten, mende hartan eta gero, Ordenan gatazka bortitzak sortutako pobretasunaren hau. Horregatik, eta besteak beste, Erreglaren azalpen ofizial horietan Aita Santuek erabakita utzi zuten Ordenak eskuetan zituen ondasunen jabegoarena: handik aitzina (zioen Inozentzio IV.ak, 1245ean), galderamalderatan ibili gabe, frantziskotarren eskuetara etorritako ondasun denak, emaileak besterik erabakitzen ez bazuen behintzat, Egoitza Santuarenak izango ziren, eta Aita Santuak fraideei utziko zizkien, Ordenako arauen arabera erabili edo kontsumitzeko. Beraz, jabetasunik ez, baina erabilpen-segurtasuna bai.

Esan ohienez, irtenbide teoriko horrek salbatu zuen Ordenaren kontzientzia eta Senitarteko bizimodua, Erakunde gisa moldatu ahal izateko baliabideak eskuetan jartzen zizkion aldi berean.

## ■ EKONOMIA ETXETARRA

Komentuko ekonomia arrunta oso etxetarra izan zen, komentua izanberritu eta berehala, baina XX. mendeak aurrera egin ahala kontabilitatea handituz eta korapilatuz joan da, batez ere kanporako lantegiak eta zerbitzuak ugaritzean (moldiztegia, gogartetxea, aldizkariak, argitaletxea, baserria, etab.), eta eraikuntza larri heldu behar izan zaienean.

### ECONOMÍA DOMÉSTICA

*La economía ordinaria de la Casa tuvo rasgos muy domésticos, en su gestión y formas contables, pero al correr del tiempo ha revestido alguna mayor complejidad, por el volumen de sus cifras y los compromisos extraordinarios (talleres, obras, etc.).*

## 2. ARANTZAZU: EKONOMIA ETA ELKARTASUNA

Santutegia lege-modu horren barruan ibili izan da bere ekonomia –pobrea nahiz erosoagoa– aurrera eramateko.

Eliz lana, kultur lana, esku-lana eta limosna izan dira Senitarteko sarrera-iturriak, ongileek noizbehinka eman izan dituzten laguntza bereziekin batera. Ohiko lanek eta limosna-eskeak atera dituzte aurrera fraideak eta hauen ardurapean bizi zirenak (fraidegaiak, zerbitzariak, etab.). Hemen darabilgun historian, egia da hau batez ere XX. mendeko lehen partean.

Oro har esan daiteke Santutegian eta beroni atxikitako etxeetan beti egon dela, azken mende eta erdian, giza talde handi irabaz-produktibitate gabekoa (gazteena, alegia, gerorako prestatzen ari zena). Horrek –etorkizunerako segurtasun eta inbertsioa izanik ere– zama handia suposatu izan du ekonomiarako, hamarkada luzetan, eta Santutegiak defizit kronikoa eraman zuen arrastaka 1970 ingurua arte.

Egoera horren aurrean, ohiko ekonomia salbatzeko, zorrak kitatzen Probintzia erlijiosoak lagundu behar izan dio Arantzazuri. 1950etik aitzina, sustatu diren produkzioei esker (baserria, azienda, argitalpenak, etab.), ordaindutako zerbitzu ezberdinen sarreren bidez (meza-ordainak, ostatu-etxea, etab.) eta gazte ikaslegoaren pisu ekonomikoa arinduz joan den neurrian (1970...) altxa du burua Santutegiak. Azken urteetan, gainera, adinak gora egin duen heinean,

erretiro-sarrerek ere lagundu izan dute egoera ekonomikoa hobera eramaten.

Aurrekontu berezietarako eta eraikuntza lan handiak burutu ahal izateko, are estuago ibili izan da Santutegia bera, eta honelakoak kanpoko laguntza bereziak bilaturik egin ahal izan dira: lehenik, beti bezala, Probintzia erlijiosoak, eta gero herritarren diru-laguntzak, erakunde publiko eta pribatu-tuen parte-hartzea. Basilika berriko eraikuntza izan zen kasu hauetako bat, 1950.eko hamarkadan.

Gaur egun, Santutegia bere kudeakuntza ekonomiko arruntarekin bakean bizi da, estuasunik gabe, bizimodu apa-lean eta gure herriko eta nazioarteko premiekin erne, Santutegira datozei giza eta kristau elkartasunera deituz, eta urtero, ahal den neurrian, behartsuei laguntza luzatuz, Hirugarren Munduko zenbait Proiektutan partaide delarik.



► FRAI JOAN ELIZEGI (1911...)

XX. mendean batez ere bi izan dira Arantzazuko kontu-liburuak eraman izan dituztenak: Frai Antonio Sasiain (Amasa, 1856-1932) eta Frai Joan Elizegi. Hark XIX. mendetik 1930. artekoa egin zuen, eta Elizegi Anaia 1945.etik dago zeregin berean. J. Elizegi Ordizian jaio zen, eta 1930ean hartu zuen abitu frantziskotarra. Beste lekutan eta bereziki Donostian egonaldi bat egin ondoren, Arantzazun izan du egoitza beti, eta bertako egoiliarren artean zaharrenetakoa da.

FRAY JUAN ELIZEGI (1911...)

*Dos nombres cubren, casi en su totalidad, el siglo XX en cuanto a la historia de los contables y procuradores (ecónomos) que ha tenido el Santuario: fray Antonio Sasiain (1856-1932) y fray Juan Elizegi. Nacido en Ordicia, fray Juan ha sido residente y Síndico-ecónomo de la Casa en los años 1945-1997.*